

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2023ko urtarrilaren 27tik otsailaren 02rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/01/27

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 16koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira zezenketen VI. hitzarmen kolektibo nazionalaren 2024. urterako soldata-taulak. **.1545 xedapena – 29 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2024/02/02

- **EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA ENPLEGU SAILA).** Arabako zur-industrien sektoreko hitzarmen kolektiboko batzorde paritarioaren akordioa. **227-E xedapena – 3 or.**
- **EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA ENPLEGU SAILA).** Arabako eraikuntza eta obra publikoen sektoreko hitzarmen kolektiboko batzorde paritarioaren akordioa. **231-E xedapena – 4 or.**
- **EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA ENPLEGU SAILA).** Arabako zementuaren deribatuen industrietarako sektoreko hitzarmen kolektiboko batzorde paritarioaren akordioa. **235-E xedapena – 3 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2024/01/30

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bilboko Portuko Zamalanetako Enpresen Hitzarmen Kolektiboaren 2024ko laneko egutegia erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (48100015012014 hitzarmen kodea). **III-7 xedapena – 2 or.**

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebatzen da Bizkaiko Fruten eta Barazkien Biltegi Jabeen eta Bananen Biltegi Jabeen Sektoreko Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (48000075011981 hitzarmen kodea). **III-8 xedapena – 14 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2024/02/02

- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** Gipuzkoako Industria Sidero-Metalurgikoaren hitzarmen kolektiboaren 2024ko soldataren berrikuspena. **663 xedapena – 7 or.**
- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** Gipuzkoako Pasta, Paper eta Kartoi Fabrikazioaren sektoreko hitzarmen kolektiboaren 2024ko soldataren berrikuspena. **664 xedapena – 6 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/01/30

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza.** PJC/51/2024 Agindua, urtarrilaren 29koa, zeinaren bidez garatzen baitira Gizarte Segurantzaren kotizaziorako, langabeziarako, jarduera eteteagatik babeserako, Soldatak Bermatzeko Funtserako eta lanbide-heziketarako 2024ko ekitaldirako lege-arauak. **1691 xedapena – 42 or.**

2024/01/31

- **OGASUN MINISTERIOA Zerga-prozedurak.** 117/2024 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, zeinaren bidez garatzen baitira plataforma-operadoreek jakinarazitako informazioaren nahitaezko truke automatikoaren esparruan arduraz jokatzeari buruzko arauak eta prozedurak, eta aldatzen baita zergak kudeatzeko eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduren arau komunak garatzeko jardueren eta prozeduren erregelamendu orokorra, uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsia, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa eginez, zeinaren bidez aldatu egiten baitira fiskalitatearen arloko administrazio-

lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua eta beste zerga-arau batzuk. 1771 xedapena – 45 or.

- **OGASUN MINISTERIOA. Zergak.** HAC/56/2024 Agindua, urtarrilaren 25ekoa, honako hauek onesten dituzten ministerio-aginduak aldatzen dituena: 123, 210, 216 autolikidazio-ereduak, 193 eta 296 aitorten informatibokoak eta EHA/1658/2009 Agindua, ekainaren 12koa, zeinaren bidez ezartzen baitira Zerga Administrazioako Estatu Agentziak kudeatzen dituen zor jakin batzuen ordainketa helbideratzeko prozedura eta baldintzak. 1772 xedapena – 27 or.
- **BARNE MINISTERIOA. Zirkulazioa. Neurri bereziak.** 2024ko urtarrilaren 24ko Ebazpena, Trafiko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez ezartzen baitira 2024an trafikoa erregulatzeko neurri bereziak. 1773 xedapena – 61 or.
- **EKONOMIA, MERKATARITZA ETA ENPRESA MINISTERIOA. Kanpo-inbertsioak.** ECM/57/2024 Agindua, urtarrilaren 29koa, zeinaren bidez ezartzen baitira kanpo-inbertsioen aitortenetan aplikatu beharreko prozedurak. 1774 xedapena – 13 or.
- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza. Aurrekontu-kontabilitatea.** Ebazpena, 2023ko abenduaren 27koa, Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailetza Nagusiarena, zeinaren bidez honako ebazpen hauek aldatzen baitira: 2014ko uztailaren 3koa, Gizarte Segurantzaren Sistema osatzen duten erakundeentzako kontabilitate-kudeaketarako instrukzioa onesten duena; eta 2022ko urriaren 11koa, Gizarte Segurantzaren Sistema osatzen duten erakundeentzako kontabilitate-eragiketarako instrukzioa onesten duena. 1775 xedapena – 24 or.

2024/02/01

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Nekazaritza Politika Bateratua.** Urtarrilaren 23ko 92/2024 Errege Dekretuaren akatsak zuzentzea, zeinaren bidez aldatzen baitira fruta eta barazkien sektoreari, mahastizaintza eta ardogintzari eta erlezaintzari buruzko zenbait errege-dekretu, bai eta nekazaritza-jardueraren eta Nekazaritza Politika Bateratuaren kudeaketaren zenbait alderdi arautzeari buruzkoak ere. 1866 xedapena – 1 or.
- **ESPAINIAKO BANKUA. Kreditu-erakundeak.** 1/2024 Zirkularra, urtarrilaren 26koa, Espainiako Bankuarena, bankuei, kreditu-kooperatibei eta gainbegiraturako beste erakunde batzuei zuzendua, kapital-egiturari buruzko informazioari buruzkoa eta eta zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 18ko 1/2009 Zirkularra, kreditu-erakundeei eta ikuskatutako beste erakunde batzuei zuzendutakoa, kreditu-erakundeen kapital-

egiturari eta partaidetza-kuotei eta haien bulegoei buruzko informazioari dagokionez.
1867 xedapena – 14 or.

2024/02/02

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Eraikuntza-materialak.** Egitura Kodea onesten duen ekainaren 29ko 470/2021 Errege Dekretuaren akatsak zuzentzea. 1989 xedapena – 4 or.
- **OGASUN MINISTERIOA. Zerga bereziak.** HAC/66/2024 Agindua, urtarrilaren 25ekoa, zeinaren bidez onesten baitira tabako-labore guztietarako aurreikusitako marka fiskalak garatzeko arauak. 1990 xedapena – 12 or.
- **HAUTESKUNDE BATZORDE ZENTRALA. Hauteskundeak.** 1/2024 Instrukzioa, otsailaren 1ekoa, Hauteskunde-Batzorde Zentralarena, zeinaren bidez interpretatzen baita Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 69.8 artikulua, hauteskunde-garaian Administrazio Publikoen mendeko erakundeek boto-asmoari buruzko inkestak egiteari buruzkoa. 1993 xedapena – 3 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2024/31/01

- **HEZKUNTZA SAILA.** AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko ebaluazioa, mailaz igarotzea eta titulazioa, hala badagokio. 509e xedapena – 36 or.

2024/02/01

- **EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA.** EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 22koa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena. Honen bidez, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren emakidadunek 2024. urtean ezar ditzaketen tarifen zerrenda eguneratua eta kontsolidatua argitaratzen da. 540 xedapena – 5 or.

2024/02/02

- **OSASUN SAILA.** AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 31koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez jakinarazten baita bertan behera geratzen dela maskararen erabilera unibertsalaren nahitaezkotasuna Euskal Autonomia Erkidegoko osasun laguntza zentroetan, eta gomendio izatera igarotzen dela. 570 xedapena – 1 or.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2024/02/02

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 20/2024 Foru Agindua, urtarrilaren 31koa, "Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Atxikipenak eta konturako sarrerak. Autolikidazioa» izena duen 216 eredu onetsi eta hura aurkezteko moduak eta epeak ezartzen dituen. **735 xedapena – 7 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 21/2024 Foru Agindua, urtarrilaren 31koa, zeinaren bidez onesten baita 123 eredu. **728 xedapena – 7 or.**

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2024/02/02

- **ERREGELAMENDUAK.** EUROPAKO BATZORDEAREN 2024/436 ERREGELAMENDU ESKUORDETUA (EB), 2023ko urriaren 20koa, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022/2065 Erregelamendua (EB) osatzen baita, eta oso tamaina handiko lineako plataformen eta bilaketa-motorren auditoretzak egiteari buruzko arauak ezartzen baitira. **735 xedapena – 7 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO